



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko martxoaren 8a

30. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Emakumearen Nazioarteko Egunaren ospakizunekin. Eledunen Batzarrak onetsia (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, patronalak Nafarroako Esku-hartze Sozialeko I. Hitzarmena aurkaratzeari buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (4. or.).
- Galdera, inflazioak langile-familiatan dituen efektuak samurtzeko neurriei buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (4. or.).
- Galdera, toki-entitateetan klima-aldaketarekiko zaugarritasunari buruzko diagnostikoak egitearen gainera. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (5. or.).
- Galdera, argindarra sortu, banatu eta merkaturatzearen alorrean sartzeko enpresa erakunde publiko bat eratzeari buruzkoa. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, Foruzaingoaren lanaldien, ordutegien eta ordainsarien erregelamenduzko garapenari buruzkoa. José Suárez Benito jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, Euskararen II. Plan Estrategikoaren zirriborroari buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, euri handien ondorioz trafiko-moztea ekidite aldera aurreikusten diren ekintzei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntza biziberritzeko planaren berri emateko kanpainari buruzkoa (Oinarrizkoaren Erronka). Patricia Fanlo Mateo andreak egin du (8. or.).
- Galdera, Iruñeko Udalaren gizarte-zerbitzuetako zentroari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (8. or.).
- Galdera, Errusiak Ukraina inbaditu duela-eta eratu den departamentuarterko taldeari buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (9. or.).

- Galdera, Ukrainako gerrak Nafarroan izanen dituen ondorio ekonomikoei buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (9. or.).
- Galdera, Nafarroan energia-komunitateak garatzeari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, azienda-instalazioak direla-eta dauden distantzia-mugapenei eta abelburu-kopuruei buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, Nafarroan jaioberrien baheketa areagoturako eskubidea arautzen duen ekainaren 18ko 10/2021 Foru Legea ez betetzeari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (11. or.).
- Galdera, jakiteko zer urrats emango diren Ukrainaren inbasioaren ondoren gerra luzatzeak sortuko duen energia- eta elikagai-krisiaren arriskuaren aitzinean. Uxue Barcos Berruezo andreak egin du (12. or.).
- Galdera, Ukrainako gatazkak Foru Komunitatean izan ditzakeen ondorioei eta alderdi humanitarioetan, bakegintzan eta harrera egiteari dagokionez laguntzeko dauzkagun aukerei buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Europako Next Generation funtsetatik datozen 125 proiektu abian jartzeari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, bakarrik dauden bi adingaberen egoera konpondu eta gazte mailako futboleak lehiatu ahal izan daitezen Nafarroako Kirolaren Institutuak esku hartzeari buruzkoa. Galdera erretiratzea (14. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Parlamentuak gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundaziorako (Gizain Fundazioa) izendatu beharreko patronatukide bat hautatzea. Hautagitzak aurkezteko epearen luzapena (15. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Emakumearen Nazioarteko Egunaren ospakizunekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2022ko martxoaren 7an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du martxoaren 8an eginen den Emakumearen Nazioarteko Egunaren inguruko ospakizunarekin, eta herritar guztiei dei egiten die egun hori dela eta antolatzen diren ospakizun eta aldarrikatze-ekitaldietan parte har dezaten.

2. Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa berresten du emakumeen eskubideak zainduko dituzten politikak eta gizon eta emakumeen arteko egiazko berdintasun eraginkorra sustatzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak aitortzen du tokiko politiken garrantzia zaintzei buruzko ikuspegi-aldaketa sustatzeko eta hala aurrera egiteko gizon eta emakumeen arteko berdintasunean.

4. Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa agertzen du bizitzaren jasagarritasuna ahalbidetzen duten eta nagusiki emakumeek egiten dituzten zaintza-lanei ikusgarritasuna eta balioa emateko eta lanaren sexu-banaketa indartzen duten rol eta estereotipoetan eragiteko.

5. Nafarroako Parlamentuak adierazten du arbuiazen dituela adierazpen negazionistak eta emakumeen eskubide-aurrerabidearen aurkakak.

6. Nafarroako Parlamentuak aitortzen ditu mugimendu feministak berdintasunaren eta emakumeen eskubideen aldeko borrokan eginiko ekarpenak”. (10-22/DEC-00013).

Iruñean, 2022ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, patronalak Nafarroako Esku-hartze Sozialeko I. Hitzarmena aurkaratzeari buruzkoa.*MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako galdera, patronalak Nafarroako Esku-hartze Sozialeko I. Hitzarmena aurkaratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zein da Eskubide Sozialetako kontseilariaren balorazioa patronalak Nafarroako Esku-hartze Sozialeko I. Hitzarmena aurkaratzeari buruz eta horrek plantillei ekarriko dizkien ondorioei buruz?

Iruñean, 2022ko otsailaren 28an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

Galdera, inflazioak langile-familetan dituen efektuak samurtzeko neurriei buruzkoa.*MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, inflazioak langile-familetan dituen efektuak samurtzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa De Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten du, Parlamentu honen hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Otsailean zehar, aurreko hilabetearekin alderatuta, kontsumoko prezioen indizea (KPI) % 0,6 igo zen, urtearteko tasa puntu bat baino gehiago igota bat-batean, % 7,4raino, 33 urtean tasarik altuena, hain zuzen ere 1989ko uztailez geroztik.

Otsaileko datuarekin, urtearteko KPIak hamaugarren tasa positiboa lortu du jarraian, astele-

hen honetan Estatistikako Institutu Nazionalak argitara emandako datuen arabera.

Horri jarraikiz, otsaileko urtearteko KPIa % 7,4raino igo izanaren arrazoa da haren osagai gehienetan igoera nagusitu dela; bereziki, elikagai eta edari alkoholgabeetan eta erregaian, eta era berean argindarraren prezioen portaera, otsailean

jaitsiera apalagoa izan dutelako 2021eko otsailean baino.

Inflazioak langile-familiatan dituen efektuak samurtzeko inolako neurririk aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak?

Iruñean, 2022ko otsailaren 28an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, toki-entitateetan klima-aldaketarekiko zaugarritasunari buruzko diagnostikoak egitearen gainekoa.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako galdera, toki-entitateetan klima-aldaketarekiko zaugarritasunari buruzko diagnostikoak egitearen gainekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari

Ainhoa Aznárez Igarza andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen duenaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak martxoaren 10eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Nazio Batuen Erakundeko Klima-aldaketaren aurkako aditu-panelaren azken txosteneko datu etsigarriak ezagutu ditugu, eraginei, egokitzapenari eta zaugarritasunari buruzkoak. Ohartarazten dute berotze globalaren aurrean ezer ez egitearen larritasunaz. Hortaz, Nafarroako Gobernuak oraindik ere gehiegizkotzat jotzen al du toki-entitateetan klima-aldaketarekiko zaugarritasunari buruzko diagnostikoak egitea?

Iruñean, 2022ko martxoaren 1ean

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, argindarra sortu, banatu eta merkaturatzearen alorrean sartzeko enpresa erakunde publiko bat eratzeari buruzkoa.

CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkeztutako galdera, argindarra sortu, banatu eta merkaturatzearen alorrean sartzeko enpresa erakunde publiko bat eratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190, 191 eta 192. artikuluetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak ahoz erantzun dezan:

Zer iritzi du lehendakariak, bere gobernukideek enpresa erakunde publiko baten bidez argindarra sortu, banatu eta merkaturatzearen alorrean sartzearen alde duten jarrera argiari buruz?

Iruñean, 2022ko martxoaren 2an

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

Galdera, Foruzaingoaren lanaldien, ordutegien eta ordainsarien erregelamenduzko garapenari buruzkoa.

JOSÉ SUÁREZ BENITO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Suárez Benito jaunak aurkeztutako galdera, Foruzaingoaren lanaldien, ordutegien eta ordainsarien erregelamenduzko garapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen José Suárez Benito jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer zuzemen egin du Espainiako Gobernuarekin, Nafarroako Poliziei buruzko 23/2018 Foru Legean ezartzen den moduan Nafarroako Foruzaingoaren lanaldien, ordutegien eta ordainsarien erregelamenduzko garapena egin ahal izateko gaikuntza berezia eskatzeari dagokionez?

Iruñean, 2022ko martxoaren 2an

Foru parlamentaria: José Suárez Benito

Galdera, Euskararen II. Plan Estrategikoaren zirriborroari buruzkoa.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztutako galdera, Euskararen II. Plan Estrategikoaren zirriborroari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Iñaki Iriarte López jau-

nak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Euskararen II. Plan Estrategikoaren zirriborroak honako helburu hauek aipatzen ditu: “hizkuntza-paisaian euskararen presentzia areagotzea”, “euskarazko hedabideen kontsumoa areagotzea”, “euskarazko kontsumoa areagotzea”, “euskararen presentzia areagotzea euskararen ezagutza urria den eskualdeetan” eta “euskararen erabilera soziala areagotzea erabilera ahulenerako eremuetan”.

Helburu horiek eremu ez-euskaldunean ere aplikatzekoak dira, ala eremu mistoan eta euskaldunean bakarrik?

Iruñean, 2022ko martxoaren 3an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

Galdera, euri handien ondorioz trafiko-moztea ekidite aldera aurreikusten diren ekintzei buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, euri handien ondorioz trafiko-moztea ekidite aldera aurreikusten diren ekintzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer jarduketa aurreikusten du ekidite aldera errepide sareko zenbait bidetan trafikoa moztea euri handien ondorioz??

Iruñean, 2022ko martxoaren 3an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntza biziberritzeko planaren berri emateko kanpainari buruzkoa (Oinarrizkoaren Erronka).

PATRICIA FANLO MATEO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Fanlo Mateo andreak aurkeztutako galdera, Oinarrizko Osasun Laguntza biziberritzeko planaren berri emateko kanpainari buruzkoa (Oinarrizkoaren Erronka).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Patricia Fanlo Mateo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osasuneko kontseilariak 2022ko martxoaren 10eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Oinarrizko Osasun Laguntza biziberritzeko planaren berri emateko kanpaina (Oinarrizkoaren Erronka) Nafarroako osasun barrutietan aurkeztu ari da. Zer eragin lortzen ari da eta zein da haren balantzea?

Iruñean, 2022ko martxoaren 3an

Foru Parlamentaria: Patricia Fanlo Mateo

Galdera, Iruñeko Udalaren gizarte-zerbitzuetako zentroari buruzkoa.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iruñeko Udalaren gizarte-zerbitzuetako zentroari buruz Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Lehendakariaren ustez Iruñeko Udalar bere gizarte-zerbitzuetako zentroa ordaindu beharra al dago orain, hiriburutza agiria kendu zaiolarik, Foru Komunitatearen gainerakoan egiten den bezala?

Iruñean, 2022ko martxoaren 3an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Galdera, Errusiak Ukraina inbaditu duela-eta eratu den departamentuarterteko taldeari buruzkoa.

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Errusiak Ukraina inbaditu duela-eta eratu den departamentuarterteko taldeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak 2022ko martxoaren 10eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Errusiak Ukraina inbaditu duela-eta Nafarroako Gobernuak eratu duen departamentuarterteko taldeak zer lan egingen du?

Iruñean, 2022ko martxoaren 3an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

Galdera, Ukrainako gerrak Nafarroan izanen dituen ondorio ekonomikoei buruzkoa.

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ukrainako gerrak Nafarroan izanen dituen ondorio ekonomikoei buruz Laura Aznal Sagasti andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztzen du, Nafarroako Gobernuak Legebiltzarren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Azken gertakariak eta Ukrainan gerra piztu izanak, bertako populazioarentzako ondorio dramatikoak gain, ondorio ekonomikoak ere baditu Europar Batasun osoan, oraindik aurreikusitako ezin den tamainakoak eta zenbateko ezin neurtuzkoa dutenak. Sorrarazitako ondorioak azaleratzen hasiak dira jadanik.

Energia-krisia are larriagotzen ari da; gasaren eta argindarraren prezioek ziztu bizian egin dute gora; joan den urtearen bukaeran jada mugak hausten ari baziren ere; KPlaren urtearterteko tasak igoera itzela izan du.

Hori guztia jadanik eragiten ari da enpresen lehiakortasunean, toki entitateetan eta, azken finean, Nafarroako herritar guztiengan. Gauzak horrela:

Gobernuaren ustez gertakari horiek zer ondorio ekarriko dute Nafarroako egoera ekonomikora eta diru-bilketa fiskalerako eta, kasua bada, zer neurri hartzeko asmoa du?

Iruñean, 2022ko martxoaren 3an.

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

Galdera, Nafarroan energia-komunitateak garatzeari buruzkoa.

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroan energia-komunitateak garatzeari buruz Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak martxoaren 10eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Duela egun batzuk, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak Nafarroan energia-komunitateak arautzeko foru agindu baterako proiektu bat aurkeztu zuen, eta iragarri zuen Nafarroako

roako Gobernuaren gardentasun atarian argitaratuko zela, jendaurreko informazio gisa, Europako araudian ezarritakoari Nafarroan behin betiko bultzada emateko ideiak jasotzeko parte-hartze prozesu bati ekiteko xedez.

Irujo kontseilariak azaldu zuenez, energia-komunitateen garapenaren zenbait alderdi Estatuaren eskumenekoak badira ere, Nafarroako Gobernuaren ustez posible zen bereak diren eskumenak ukitzen dituzten alderdiak arautzeko ekimena baliatzea, alde batetik segurtasun juridikoari eusteko eta, bestetik eta aldi berean, dagoen lege-hutsunea betetzeko.

Energia-komunitateak ezinbesteko zeregina izatekoak dira energia-horniduraren deskarbonizazioranzko paradigma-aldaketan; hori dela eta, horiek garatzeko legeria premiazkoa eta lehentasunezkoa da.

Hori dela-eta, galdera hau egiten diogu Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariari, ahoz erantzun dezan:

Zein izanen da aipatu foru aginduaren zeregina Nafarroako energia-komunitateen garapenean?

Iruñean, 2022ko martxoaren 3an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

Galdera, azienda-instalazioak direla-eta dauden distantzia-mugapenei eta abelburu-kopuruei buruzkoa.

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak aurkeztutako galdera, azienda-instalazioak direla-eta dauden distantzia-mugapenei eta abelburu-kopuruei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak martxoaren 10eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Maiatzaren 30ean amaituko da Nafarroako Parlamentuak onetsitako luzamendua, abeltzaintzako instalazio berriak paratu eta lehendik daudenak handitzekoa.

Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzeko foru lege proiektua ez denez onetsi, hauxe jakin nahi dugu:

Zein da Nafarroako Gobernuaren egoera, azienda-instalazioen arteko distantzia eta abelburu-kopurua mugatzeari dagokionez?

Iruñean, 2022ko martxoaren 3an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

Galdera, Nafarroan jaioberrien baheketa areagoturako eskubidea arautzen duen ekainaren 18ko 10/2021 Foru Legea ez betetzeari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako galdera, Nafarroan jaioberrien baheketa areagoturako eskubidea arautzen duen ekainaren 18ko 10/2021 Foru Legea ez betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernua ez da betetzen ari Nafarroan jaioberrien baheketa areagoturako eskubidea arautzen duen ekainaren 18ko 10/2021 Foru Legea. Zergatik?

Iruñean, 2022ko martxoaren 3an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, jakiteko zer urrats emango diren Ukrainaren inbasioaren ondoren gerra luzatzeak sortuko duen energia- eta elikagai-krisiaren arriskuaren aitzinean.

UXUE BARCOS BERRUEZO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Uxue Barcos Berruezo andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko zer urrats emango diren Ukrainaren inbasioaren ondoren gerra luzatzeak sortuko duen energia- eta elikagai-krisiaren arriskuaren aitzinean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun Uxue Barcos Berruezo andreak, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak heldu den martxoaren 10eko Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ukrainaren inbasioak krisi humanitario bat sortu du jada, eta horren aurrean prestatu egon behar dugu.

Horrek eta, gerra luzatuko delakoan, energia- eta elikagai-krisiaren arriskuak, Europako administrazio desberdinoi ere egin behar batzuk jartzen dizkigu.

Horregatik guztiagatik, honako galdera hau egiten diogu lehendakariari:

Aipaturiko aferan zer urrats egiteko asmoa duzu?

Iruñean, 2022ko martxoaren 7an

Foru parlamentaria: Uxue Barcos Berruezo

Galdera, Ukrainako gatazkak Foru Komunitatean izan ditzakeen ondorioei eta alderdi humanitarioetan, bakegintzan eta harrera egiteari dagokionez laguntzeko dauzkagun aukerei buruzkoa.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Ukrainako gatazkak Foru Komunitatean izan ditzakeen ondorioei eta alderdi humanitarioetan, bakegintzan eta harrera egiteari dagokionez laguntzeko dauzkagun aukerei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentariaren elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak 2022ko martxoaren 10eko Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Zer balorazio egiten duzu Ukrainako gatazkak Foru Komunitatean izan ditzakeen ondorioez eta Nafarroatik alderdi humanitarioetan, bakegintzan eta harrera egiteari dagokionez laguntzeko dauzkagun aukerez?

Iruñean, 2022ko martxoaren 7an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

Galdera, Europako Next Generation funtsetatik datozen 125 proiektu abian jartzeari buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Europako Next Generation funtsetatik datozen 125 proiektu abian jartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen José Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Lehendakariak oraindik eusten al dio 125 proiektu abian jartzeko aurreikuspenari, zeinak 3.400 milioi euro baino gehiagoko aurrekontua baitauka, Europako Next Generation funtsetatik datorrena, 2020ko urriaren 28an iragarri zuen bezala?

Iruñean, 2022ko martxoaren 7an

Foru parlamentaria: Javier Esparza Abaurrea

Galdera, bakarrik dauden bi adingaberen egoera konpondu eta gazte mailako futboleko lehiatu ahal izan daitezkeen Nafarroako Kirolaren Institutuak esku hartzeari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Carlos Mena Blasco jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanaz. Galdera bakarrik dauden bi adingaberen egoera konpondu eta gazte mailako futboleko lehiatu ahal izan daitezkeen Nafarroako

Kirolaren Institutuak esku hartzeari buruzkoa zen, eta 2022ko otsailaren 22ko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuak gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundaziorako (Gizain Fundazioa) izendatu beharreko patronatukide bat hautatzea.

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 7an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundaziorako (Gizain Fundazioa) patronatukide bat hautatzeko hautagaiak aurkezteko

epea **2022ko martxoaren 17ko 17:30ak arte** luzatzea. (10-22/ELC-00002).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias
